

LEHEN HEZKUNTZA PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Jarduera didaktikoekin osatutako txostenaren bigarren zati hau ikasleek desnutrizioa jasaten duten milioika neska-mutilen errealitatea gertutik ezagutzeko planteatuta dago, ikasle bakoitzak bere inguruneari konta diezaion ekintza solidarioaren bidez nola lagunduko dien haur horiei.

Ikuspegi metodologikoa, beraz, beste errealitate batzuk EZAGUTU, bere ingurunean KOMUNIKATU eta EKITEA dira.

Helburu orokorrez eta espezifikoez gain, jarduera horiek eta ekintza solidarioak LOMLOE legean bildutako gaitasunak garatzen lagunduko diete:

HELBURUAK:

Ikuspegi hori gauzatzeko, ikus-entzunezko multzo bat aurkezten dizuegu, baita ikasleekin hainbat gai lantzeko pedagogia-proposamenak ere:

1. Gosea eta desnutrizioa ezagutzea
2. Auzi hori mundu-mailako arazo bihurtzen duten zenbakiak ulertzea
3. Ikasleak konponbide gisa jartzea munduaren aurrean
4. Desnutrizioa prebenitu eta harekin amaitzeko laguntza humanitarioa ulertzea

Kausa humanitarioak ulertzeaz gain, gizarte-kontzientzia lortzea ere landu dezakezue ikasleekin:

1. Enpatiaren, justiziaren eta bizikidetzaren balioak indartuz.
2. Ohitura osasungarriak eta janaria alferrik galtzearen aurkako jarrerak bultzatuz.
3. Bakearen eta gizarte-justiziaren aldeko kultura baten alde eginez.

EDUKIAK ETA PEDAGOGIA-PROPOSAMENA:

Jarduera hauek zuzenduta dagoen etaparen arabera bereizita daude. **Eskola-ordu bat edo bi erabil ditzakezue, hausnarketarako** prestatu ditugun bideoak erabiliz. 9 eta 16 urte bitarteko haurrei modu didaktikoan eta adin horretara egokituta desnutrizioa zer den, zein motatako desnutrizioak dauden eta munduan zenbat pertsonak jasaten duten azaltzen da, baita desnutrizioa prebenitzeaz eta sendatzeaz arduratzen diren pertsonak zein diren ere. Azkenik, zuen laguntzari esker, Save the Children-ek, bai eta beste lankidetzak-erakunde batzuek ere, nola jarduten duten azaltzen dizuegu xehe. Amaieran,

bideo osagarri bat edukiko duzue, non klima-aktibista gazteek gosea eta Somalia, Kenya eta beste herrialde batzuk gogor kolpatzen dituzten hondamendi naturalak lotzen dituzten.

Bestalde, gehiago sakondu nahi izanez gero, jarduerak egin ditzakezu, bideoak ikus ditzakezu eta ekintza solidario bat eginez amai dezakezue, ikasle guztien partaidetza eskatzen duen proiektu zabalago bat bihurtuz. Jarduera hauek modu independentean planteatzen dira, baina osagarriak dira, eta irakasleak elkarren artean koordina daitezke **hezkuntza-proiektu** bat bilatzeko.

“HAURREN NUTRIZIOAREN ALDEKO KATEAK” 6–9 urte. Lehen-hezkuntza (bigarren eta hirugarren zikloak) 45 minutu

Helburuak:

- Haurren aldeko eskubideak landu, batez ere, elikadura osasuntsu eta egoki bat izateko eskubidea.
- Burkina Faso eta gisako herrialdeetan haur-desnutrizioa jasaten duten milioika neska-mutilen egoerari buruzko hausnarketa-prozesuak sortzea.
- Haur-desnutrizioari aurre egiten laguntzeko, partaidetza bultzatzea.

Gaitasunak

Hizkuntza-komunikazioa, desnutrizioaren arrazoiak eta ondorioak ulertuz; eskubideen alde modu aktiboan parte hartzeak gaitasun sozial eta zibikoak garatzen laguntzen du, eta gaitasun horiek bizikidetzaren, ekimenaren, erantzukizunaren eta jarrera eraikitzailearen alde egiten dute.

Metodologia

Jarduerak zalantzan jartzeko, kontrastatzeko edo ezagutzeko teknikak lantzen ditu, hau da, egoera ezagutzea, haur guztien eskubideen aldeko talde-ekimen sinbolikoak eraikiz komunikatzera pasatzeko eta, azkenik, ekintza solidarioa eginez ekiteko.

Materialak

- Perimetro-zinta zuriaren ereduak, osatu eta margotzeko (ikus i. eranskina)
- Baskula eta zinta metrikoa
- Ebakitzeko kartulinak, folioak, ehunak, egunkariak eta aldizkariak
- Pinturak, errotuladoreak, guraizeak, kola eta grapagailua

Inprimatu 2 zinta-eredu ikasle bakoitzeko, eta egin Somaliako haurren benetako neurriak dituen 3 zinta.

- Athai, 2 urte, 6 kg, besoaren perimetroa: 10 cm
- Bibata, 4 urte, 12 kg, besoaren perimetroa: 12 cm
- Wadi, 5 urte, 17 kg, besoaren perimetroa: 14 cm

Jardueraren garapena

Aurkezpena (10 min)

Irakasleak galdera batzuk egingo ditu gaia aurkezteko: egunean behin baino gehiagotan jaten dugu?, zenbat aldiz?, nork uste du elikadura osasuntsu eta orekatua oso garrantzitsua dela osasunarekin hazteko?, badakizue haur batzuk ez daukatela jateko behar adina janari?, inoiz entzun dituzue Niger edo Somalia herrialdeen izenak?, badakizue non dauden?

Afrikako herrialde batzuk munduko herrialde kaltetuenetako batzuk direla azaltzen da; eta bertako neska-mutil askok desnutrizioa daukatela, elikadura egokirik ez daukatelako. Horrelako herrialdeetan, haurrek desnutrizioa duten hautemateko, pisatu eta zinta batekin besoaren perimetroa neurtzen dietela azalduko diegu. 11 zentimetro baino gutxiago neurtzen baditu haurrak desnutrizio larria du, eta bere bizitza arriskuan dago. Neurtzeko erabiltzen den zinta horrek hiru kolore ditu, semaforoaren koloreak. Semaforoaren kolore horiek zein diren eta bakoitzak zer esan nahi duen galde diezaiekegu. Ondoren, zintako kolore gorriak zer esan lezakeen galdetuko diegu, eta gero, eremu gorriak arriskua adierazten duela azalduko diegu. Proba dezagun gehiago ikasteko.

Ezagutu eta esperimentatu (15 min)

Ikasle bakoitzari zinta bat emango zaio, eta zinta moztu eta zati bakoitza adierazitako kolorez margotzeko eskatuko zaio bakoitzari. Amaitzean, bakoitzak bere besoa neurtu eta neurria apunta dezake. Baskula bat edukiz gero, pisua ere apuntatu dezakete.

Gela 3 taldetan zatituko dugu, eta Athai, Bibata eta Wadiren besoaren perimetroko neurriak banatuko ditugu. Talde bakoitzak zinta desberdin bat edukiko du.

Talde bakoitzari kideek zintarekin lortutako neurriak partekatzeko eta tokatu zaien neurriarekin konparatzeko eskatuko diogu. Datuak iruzkintzera gonbidatuko ditugu, eta alde horiek zergatik ote diren galdetuko diegu.

Haurren desnutrizioaren aurka bat eginik (15 min)

Taldeak mantenduz jardueraren hurrengo zatirako materialak banatuko dira: zinta zuriak, aldizkariak, kartulinak, pinturak, guraizeak, kola eta grapagailua. Talde bakoitzari zinta zuriak banatuko dizkiogu, eta herrialde horietan haurrek jasaten duten desnutrizioari aurka borrokatzen lagun dezakeen mezu edo ideia bat idazteko proposatuko diogu ikasle bakoitzari.

Elkartzeko eta kate bat eginez itsasteko eskatuko diegu. Kate are luzeagoa egiteko, kate-begi gehiago egiteko eskatuko diegu talde bakoitzak dituen materialak erabiliz.

Azkenik talde guztiek katea batu, eta gelan jarriko dugu. Ikastetxeko beste toki batean ere jar liteke, hezkuntza-komunitate guztiarekin partekatzeko.

Jarduera egiteko iradokizunak

Katearen kate-begiak egiteko, jarduera egiten hasi baino egun batzuk lehenago, egunkariak, aldizkariak, ehun-zatiak, begiztak eta birziklatutako materiala ekartzeko eska diezaiekegu ikasleei.

Ikasleen adinaren arabera, neurtzeko eta pisatzeko prozesua bizkorrago egin daiteke.

Jardueran egindako katea gelan jar daiteke, eta Elkartasun-kilometroen lasterketan erabili, sinbolikoki ibilbidea adierazteko edo lasterketaren hasiera eta helmuga markatzeko. Horrela, gelan egindako lana ikusgai egingo dugu.

Ebaluazioa

Jarduera amaitzean, taldean hausnartzeko galdera batzuk egin daitezke:

- Zer ezagutu duzue jarduera honekin?
- Zerk harritu zaituzte?
- Zer egin dezakegu Somalia, Niger edo Afganistan gisako herrialdeetan bizi diren haurren egoera aldatzeko?

“BIZITZAREN LOTERIA” 9–12 urte. 50 minutu

Helburuak

- Munduan hurrek dituzten errealitate desberdinak ezagutzea.
- Haurrak egoki garatzeko bizitzako alderdiei buruzko hausnarketa erraztea.
- Haurren eskubideen berdintasunaren aldeko defentsaren parte hartzea bultzatzea.

Gaitasunak

Ezagutzak eta testuinguruan jartzeak beste errealitate batzuk ulertzea, errespetatzea eta gizalegea errazten dituzte, kultura-kontzientziari eta -adierazpideei buruzko gaitasuna garantzen lagunduz. Gaitasun sozial eta zibikoa ere bai, entzute aktiboak eta komunikazioak hausnarketa hobetu eta bizikidetzaren positiboa errazten dutelako.

Metodologia

Ezagutzeko, egoeren testuinguruak, taldearen nortasuna, entzutea, ados jartzea eta taldean adieraztea eta sortzea lantzen duten talde-dinamikak erabiltzen ditugu. Gelan ikusitako guztiarekin, komunikatu ahal izango dute, eta azkenik, ekin.

Materialak

- “Bizitzaren loteria” testu-txartelak (ikus II. eranskina)
- Folioak eta boligrafoak
- Bideoa grabatzeko kamera edo telefonoa (aukerakoa)

Jardueraren garapena

Aurkezpena (5 min)

Irakaslea munduko haurren egoera askotarikoa eta oso desberdina dela azalduz hasiko da irakaslea. Inork ez du erabakitzen testuinguru batean edo bestean, herrialde batean edo bestean bizitzea, edo neska ala mutila izatea. Bizi garen tokia, sexua, etnia, familia... ez da jaiotzean aukeratzen den zerbait, loteria bat da. Beste pertsona batzuen larruan jartzeko, kontzeptu hori landuko dugula azalduko dugu.

Bizitzaren loteria (10 min)

Horretarako, jaiotzear daudela imajinatzeko eskatuko diegu, eta bizitzaren loteriak jaiotzea tokatuko zaion ingurune eta egoera bat esleituko diola bakoitzari. Dinamikako partaide bakoitzari txartel bat banatuko zaio. Bizitzaren loterian partaideak errealitate desberdin batean kokatuko dituen zazpi egoera desberdin adieraziko dute testuek. Ikasle-kopuruaren arabera, egoera bakoitza errepikatu egingo da. Partaide bakoitzak bere txartela irakurri eta egoera bera duten ikaskideak aurkitu beharko ditu. Taldeak osatu eta gero, toki bat aurkitu eta bertan geratuko dira gelan.

Bizipenak partekatuz (35 min)

Talde bakoitzeko pertsona bat bozeramalea izango da eta egoeraren testuingurua irakurriko die ozen gainerako taldeei pluraleko lehen pertsonan. Denek beren egoera partekatu ditugunean, planteatzen joango garen galderak entzuteko eta, galderak egiten diren heinean, keinuen bidez ados dauden ala ez erantzuteko eskatuko diegu taldeei. Erantzuna banaka eman behar da, txartelaren arabera bizitzea tokatu zaien testuinguru-egoeran jarrita:

- Erabat ados badaude, bi besoak altxatu eta bi eskuak mugitu behar dituzte.
- Nolabait ados badaude, beso bakarra altxatu eta esku bakarra mugitu behar dute.
- Ez badaude batere ados, ez dute besorik altxatuko.

Galdera hauek egingo dira:

- Tokatu zaizun bizitzak ura eskuratzeko arazoak dituzu?
- Familian elikagai osasuntsuak falta zaizkizue?
- Gure familian ohikoak dira osasun-arazoak?
- Normaltasunez joan zaitezke eskolara?
- Zure adineko haur bati tokatzen ez zaizkion ardurak dituzula uste duzu?
- Loteria honetan tokatu zaizun bizitza zure benetako bizitzaren antzeko da?
- Zure egoera bidegabea dela eta hobetu egin behar dela uste duzu?

Amaitzeko, talde bakoitzak apuntatu, adierazi eta hausnartzeko galdera ireki bat planteatuko da: Elikadura egoki bat izateko zailtasunak dituzten munduko haurren egoera hobetzeko zerbait egin litekeela uste duzu? Talde bakoitzak 5 minutu dauzka ideiak bildu eta folio edo kartulinetan idazteko. Lan-taldeek proposamenak partekatuko dituzte, eta gelako txoko bat erabiliko dugu ideiak horiek erakusteko.

Beste proposamen bat da talde bakoitzak kamera edo telefono mugikor batekin grabaketa bat egitea, hezkuntza-komunitatea haurren desnutrizioaren aurka borrokatzeko mobilizatzeraz gonbidatzeko. Ikus-entzunezko material horiek gainerako

gelekin eta gurasoekin parteka daitezke Elkartasun-kilometroen lasterketan parte hartzera animatzeko.

Jarduera egiteko iradokizunak

Jarduera Bigarren Hezkuntzara molda daiteke. Gazteagoak diren taldeetan jarduera bi lan-saiotan egin daiteke.

Bideoak irakasleak gelan graba ditzake. Ikastetxeak nahiko balu, ikus-entzunezko materiala Save the Children-ekin parteka dezake, gure sare sozialetan zabaltzeko; baina horretarako, irudiak erabiltzeko baimen bat bidali beharko da.


Ebaluazioa

Jarduera amaitzean, taldean hausnartzeko galdera batzuk egin daitezke:

- Nola sentitu zarete tokatu zaizuen testuinguruan?
- Erraza izan da taldean erabakiak hartzea?

Eranskina I: "Haurren nutrizioaren aldeko kateak"


Margotu eta moztu



GORRIA

HORIA

BERDEA



II. ERANSKINA “Bizitzaren loteria”

“Bizi zaren herrixkan ez dago mediku-zerbitzurik. Iaz zure 7 anaia-arrebetatik 2 gaixotu egin ziren, bat beherakoarekin eta beste elgorriarekin. Gertuen dagoen osasun-etxera eraman zituzten, 60 km-ra, baina txikiena ezin izan zen salbatu, oso deshidratatuta zegoelako.”

“Familiarekin bizi zaren etxean ez dago edateko ur edangarririk, eta goizero 5 km egin behar dituzu etxera edateko, janaria prestatzeko eta garbitzeko ura ekartzeko.”

“10 urte dituzu, eta zure ahizpak/arrebak zu baino 4 gehiago. Goizero, eskolara joateko jaikitzen zaretenean, gosari osasuntsua jaten duzue esnearekin, frutarekin eta etxean egindako opilekin. Helduek behin eta berriz diote oso garrantzitsua dela ongi elikatzea ongi hazteko eta eskolei behar den moduan jarraitzeko. Goizero eskolara joaten zarete, jangela bazkaltzen duzue eta, arratsaldeko bostetan, eskolaz kanpoko jarduerak hasten dituzue eta etxeko lanak egiten dituzue. Gurasoak txandaka joaten dira zuen bila eskolara egunero.”

“Astelehenetik ostiralera zure herritik autobus bat pasatzen da neska-mutil guztiak 6 km-ra dagoen eskolara eramateko. Gaur mediku nutrizionista bat etorri da gelara dieta osasuntsu eta orekatu baten garrantziaz hitz egitera. Koipeak, goxokiak eta azukredun edariak kontu handiz kontsumitu behar ditugula esan du. Hidratatzeko ura edan behar dugula eta elikagai osasuntsuekin dieta orekatu bat eduki behar dugula dio.”

“Aurten lehorte handia izan da, eta gurasoek eta zuk zure 5 anaia-arrebekin landatutako uzta galdu egin da. Egun gehienetan ez dago familia guztiarentzako behar adina janari. Herrixkara etorri ohi den erizainak esan du elikagai eta ur eskasiak eragin handia duela zure anaia-arreben eta zure hazkuntzan.”

“5 anaia-arrebetan alaba nagusia zara. Oso txikitatik anaia-arreba txikiak zaintzen dituzu eta oso gutxi joan zara eskolara, nahiz eta asko gustatuko litzazukeen irakurtzen eta idazten ikastea.”

“Atzo beste anaia bat jaio zen, 5 anaia dituzu jada familian. Zure ama oso ahul dago, medikuak esan dio oso garrantzitsua dela egoera onean dagoen ura edan eta ongi elikatuta egotea, haurtxo jaioberriari titia eman ahal izateko. Kezkatuta zaude ez dagoelako janaririk eta zure amak zuek guztiak zaintzeko indarririk ez duelako.”